

EUSKAL HERRIA 2020 (III) > OSAGARRIA ETA EGOERA SOZIALA

■ EGOERA SOZIALA

Sendagileak 100.000 biztanleko

Gunea	Sendagile orokorrak	Sendagile berezitak	Erizainak
Barnealdea	93	56	39,8
Lapurdi barnealdea	120	32	63,9
Kostaldea	163	203	89,2
Ipar Euskal Herria	145	149	77,4


Bizi baldintzak (%)

Guraso bakarrek familiak	14
Haur askoko familiak	7,8
Bakarrik bizi direnak	33,2
Bakarrik bizi diren 75 urtetik gorakoak*	55,2
Autorik ez duten etxeak	16,3
Etxe jabeak	56,8

*zaharren arteko proportzioa

15-29 urte artekoak

□ Emakumeak ■ Gizonak



Gazteen lanbideak

	15-29 urte	30-49 urte
Laborariak	2,6	4,5
Ofizialeak eta enpresaburuak	3,7	9,2
Ardura postuak edo intelektualak	3,8	9,6
Erdimailakoak	18,2	20,7
Langileak	39	32,4
Beharginak	32,8	23,5


ITURRIA: GARAPEN MONITELIA

Prekaritatea (%)

Gunea	Gutxiengo errenta dutenen proportzioa	Babes sozialeko etxebizitzak	Langabezia tasa	Iraupen luzeko langabezia (gazteen artean)
Barnealdea	1,55	1,8	7,6	26,6
Lapurdi barnealdea	2,04	3,3	9,5	26,2
Kostaldea	4,62	12,1	15,2	30,1
Ipar Euskal Herria	3,69	9,3	13	29,1

Adinaren arabera, populazioaren bilakaera 1990-tik 1999-ra (%)

□ Balore positiboa ■ Balore negatiboa



Baionako Ospitalean obra handiak egiten ari dira, eskaintza hobea eta zabalagoa ukan dezan. CA...

Osasun hausturak konpontzeko beharra

Osasun alorra osagarri onean badago ere, gabezia eta desoreka franko konpondu behar dira datozen urteetan.

ENEKO BIDEGAIN

Baiona

Ez dira sendagileak eta erizainak eskas Ipar Euskal Herrian. 145 sendagile daude 100.000 biztanlerentzat, batez beste. Hots, orotara 391. Beste 403 berezitu gehitu behar zaizkie. Horrek ez du kentzen barnealdearen eta kostaldearen arteko desoreka handiak badirela. Kostaldean 163 sendagile daude 100.000 biztanlerentzat; barnealdean, aldiz, 93 baizik ez dira. Datozen

urteetako lehenasunetarikoa bat barnealdeko osasun eskaintza hobetzea izanen da, *Euskal Herria 2020* txostenen landu dutenentzat.

Barnealdean hurbileko eta kalitateko osasun zerbitzu eskaintza zabaldu zuzentzeko buruz lan egin nahi dute. Sendagileak, zerbitzu psikologikoak, permanentziak eta larrialdi zerbitzuak antolatzea eta hobetzea landu nahi dute. Alabaina, ospitalera joan behar dutenak, barnealdeko Baionako aukera baizik ez dute; distantzia luzeak egin behar dituzte, beraz. Larrialdietarako arazoak sortzen ditu.

Horiek hola, orokortasunean hartuz, Baionako ospitaleak Ipar Euskal Herriko biztanleen beharrei «oso ongi» erantzuten die, *Euskal Herria 2020* txostenaren arabera. Gainera, Baionako Ospitalea

obra handiak egiten ari da, oraino eskaintza hobea eta zabalagoa ukan dezan.

Donostiako Ospitalearekin elkarlanerako hitzarmen bat izenpetu zuen 1998an. Oraino ez da lan konkreturik egin, «elkar ezagutze eta gogoeta» fase luze bat bukatzen ari delako. Gaur egun, larrialdien inguruko elkarlana nola egituratu aztertzen ari dira, nahiz eta traba anitz jasan, gastuen eta babes sozialaren kudeaketan bereziki. Elkarlan bat abiatua da, bestalde, hiesaren kontrako programa bat abiatzeko, Bizia elkartearen,

Barnealdean hurbileko eta kalitateko osasun zerbitzuen eskaintza zabaldu zuzentzeko beharraz mintzo dira eragileak, bereziki gazteei begira. Prebentzioa ez da bakarrik hiesari begira, baina baita menpekotasunak sortzeko, gaixotasun psikokoei edo suizidioari begira ere.

ARSaren, Baionako eta Bilboko Munduko Medikuek elkarrekin eta Gasteizko Ailaket elkartearen artean.

Beste toki batzuetan baino hies kasu gehiago dago Euskal Herrian, eta birusak ez dauka mugarik. Gipuzkoaren eta Lapurdiren arteko mugan drogaren inguruan dagoen mugimenduak hiesaren areagotzea dakar. Prebentzioa gartzeko beharraz mintzo dira eragileak, bereziki gazteei begira. Prebentzioa ez da bakarrik hiesari begira, baina baita menpekotasunak sortzeko, gaixotasun psikokoei edo suizidioari begira ere.

LURRALDEKO OSASUN KONFERENTZIARI

Gabezia batzuk badaude, ordea, psikiatria arloan. Aspaldian baliabide eskasak daude. Baionako psikiatria zentroak ez dauka nahiko egiturarik eriak bergizarteratzen lagutzeko. Ondorioz, ospitaleko lekuak gaindikatu dira, berez ospitale psikiatrikoan egon behar ez luketenek bertan jarraitzen du-

Baionako eta Donostiako ospitaleek elkarlana garatu nahi dute, larrialdi zerbitzuetan bereziki

telako, handik kanpoko jarraipenik ez izanez. Ospitaleko lekuak krisi larriaren direnentzat uzteko, harrera etxe medikalizatuak sortzea proposatzen dute. Arazo psikiatrikoak dituztenei bizileku bat modu autonomoan hartzeko aukera ere aipatu dute, betiere artatze psikiatrikoak jarraituz.

Frantziako Estatuak lurraldeko osasun konferentziak bultzatu ditu. Egitura horien helburua erietxe eta ospitaleetako arduradunak, mediku liberalen ordezkariek eta hautetsien ordezkariek biltzea da, osasun zerbitzuak antolatzea. Ipar Euskal Herriaren arazoa da Baxenabarre eta Lapurdi Baionari lotuak direla baina Zuberoa aparte hartu eta Paueri lotu diotela.

Baina, *Euskal Herria 2020* txostenaren arabera, osasun politikak lurraldearen heinean kudeatzeko jarrera hori aterabide bat izan daiteke osasun sistemak elkarren artean aski lotuak ez diren testuinguruan. Ipar Euskal Herriaren nortasun azkarra, elkartasun jarrera eta harrerarako ohitura bide hori indartzeko aukera gisa ikusten dituzte. Eragileek kontzientzia hartu dutela oharu dira, eta lan kolektiborako dinamika berriak zutik ezarri dituzte.